




LAPAKIZA (1.890 m)

HASIERA:
MATA DE HAYATIK



OHARRA:

- Goi mendiko ibilbidea da.
- Goiko aldean laino itxia ohikoa da; bat-batean sortzen da. Beharrezkoa da urte osoan jantzi beroak eta GPS-a eramatea.
- Neguan gune izoztuak egon daitezke, baita elur-jausi eta eroriko bertikalak izateko arriskua ere. Urtaro horretan egiten bada, beharrezkoa da segurtasun eta autobabes material egokia eramatea.



Lapakiza Linzola mendira igotzeko bide bera hartu behar dugu: Belaguako txokoa zeharkatu Aztaparretako sakanerantz, Erregearen Haitzerantz gora hasi, eta azkenik Larrerriako lepotik datorren GR 12 bidearekin elkartu. 1.890 metroko altueran, Larrako ateetako sakonunean, GR 12a utzi eta hegoalderantz abiatuko gara gailur-lerroaren bila, handik tontorrerako bidea egiteko. Gailurra behatoki ezin hobea da Linza ibarra eta hori inguratzen duten mendiak ikusteko.